

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektuaren izena, Jila Planet da. Gure inguruan dauden arazoak aztertu ondoren mahai digital bat sortzea erabaki dugu, nagusiki hezkuntzan oso lagungarria izango dena. Izan ere, planteamendua hezkuntzatik at aurkeztu saiakera ere egin dugu.

Hortaz, hasiera batean, DBH eta batxilergoko ikasleentzat izango da, eta bertan izango dituzte liburu eta apunte guztiak eta horrekin batera klaseak dinamizatuko dituen zenbait programa. Gainera irakasleak, mahai horrekin konektatua dagon pantalla digital bat izango duten gelan, eta horren ondorioz gelan ematen diren azalpen guztiak eta irakasleak prestatutako bideo eta irudi guztiak, zuzenean mahai digitalean agertuko zaizkie ikasleei. Hauek, gai izango dira informazio guztia beraien nahieran manipulatzeko bai behatzarekin eta bai arkatza digitalarekin. Horrela, klasea era dinamikogo batean gauzatuko litzateke zenbait arazoei aurre egiteaz aparte. Hala nola, motxilen pisuaren arazoa eta arreta kontuak hobetzea. Bestalde, kutsu ekologista duen proiektua da. Izan ere, paper erabileraren murrizketan egiten ditu ekarpenak.